

Azaroaren 20an Haurren Eskubideen Eguna Unibertsala ospatuko dugu. Horregatik, eta kontuan hartuta, aurten, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren (HEH) 32. urteurrena beteko dela, Bizkaiko Herrialde Historikoko bigarren hezkuntzako hainbat ikastetxe Gernikako Batzar Etxera etorri gara identitate bat izateko eskubidea aldarrikatzera, agiri horren 8. artikuluan jasotzen den bezala.

Euskal gizartearen kide aktibo gisa, baloratu nahi dugu honelakoa moduko leku batean gure ardurak eta aldarrikapenak adierazteko aukera eman izana. Denborak aurrera egin arren, oraindik jarraitzen du erabaki-gune nagusi izaten, ideia eta identitate desberdinak adierazteko biltzar, demokraziaren topagune.

Horrela, lehenik eta behin, eta hitz egiteko aukera hau baliatuz, hemen eta orain gogoratu nahi dugu Identitatea funtsezko eskubidea dela eta, horren bidez, gizabanako bakoitzaren eta talde bakoitzaren nortasunak zaintzen eta ahalbidetzen direla. Horregatik, diskriminaziorik ez egiteko deia egiten dugu, aurreiritzirik gabeko gizarte bat aldarrikatuz, non identitate bakoitza errespetatua izango den.

Gure ustez, identitatea NAN agirian jasotzen den informazioa baino askoz gehiago da. Identitatea da nola sentitzen naizen, identitatea da komunean dugun zerbait, identitatea da non bizi garen. Azken batean, identitatea dira gizabanako edo kolektibo gisa definitzen gaituzten ezaugarriak.

Jakin badakigu, hala ere, garen guztia ez dela gaur egun errespetatzen. Horregatik, gaur ematen zaigun aukera aprobetxatuta, estereotipoak eta etiketak haustea eskatzen dugu, gure askatasuna baliatu nahi dugu garen bezala izateko, gure gustuengatik, gure izaeragatik, gure janzkeragatik edo ohiturengatik epaituak izateko beldurrik gabe.

Gazte ameslari garen aldetik, ez gara horrekin bakarrik konformatzen; horregatik, gero eta gehiago dira generoa eta sexua bat direlaren ideia zaharrari uko eginez, direna aldarrikatzera ausartzen direnak. Denon artean gizarte berdintzailea eraikitzea erreklamatzeko dugu, inork ez gaitzan epaitu garenak garela, gustuko duguna gustuko dugulako, inork ezer apurto beharrik izan ez dezan.

Era berean, ahotsa altxatu nahi dugu nahikoa dela esateko. Nahikoa da gaur egun generoaren inguruan ematen den desorekarekin; generoak, etniak edo nazionalitateak ez luketelako mesprezatzeko

arrazoi izan behar, gizarte gisa aberasteko baizik. Dualtasuna alde batera utzi nahi dugu, gure artean harreman zuzena izanez, berdina garelako, gure artean hesirik ez eraikitzeko, zubiak baizik; aniztasunean, guztiok bat eginik, gehiago garelako.

Azken batean, Bizkaiko gizartearen oraina eta etorkizuna garen aldetik, dagokigun espazioa aldarrikatzen dugu. Erabakiak hartzerakoan alde batera ez uzteko deia eginez, eta gaur, 2021eko azaroaren 18an, eman zaigun lekua aprobetxatuz eta Hitzarmenaren islatzen den bezala, parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, eta klase politikoari eskatzen diogu eskubide unibertsalekin batera haurren eskubideak alde batera ez uzteko, horretan lan egitea etorkizuna defendatzea baita.

IDENTITATEA IZATEKO ESKUBIDEA DUGU!

NANEAN JARTZEN DUENA BAINO GEHIAGO
GARA!

SENTITZEN GARENA GARA!

IZAERA BAKOITZA ERRESPETAGARRIA DA!
GURE IDENTITATE SEXUALA NATURALITASUNEZ
BIZI NAHI DUGU!

BERDINTASUNEAN ETA BERDINTASUNEZ BIZI
NAHI DUGU!

ARRAZAKERIARIK GABEKO GIZARTEA
ALDARRIKATZEN DUGU!

GENEROAK EZ DU SEXUA DEFINITZEN!

SARE SOZIALAK IDENTITATERAKO ESPAZIO
SEGURUAK BILAKATZEA ESKATZEN DUGU!

GAREN MODUAN IZATEAGATIK EPAITUAK EZ
IZATEA ESKATZEN DUGU!

BAKOITZAREN KULTURA
NORBERAREN PARTE DA!

GENERO IDENTITATEAGATIKO
BORTIZKERIARIK EZ!

El próximo 20 de noviembre se conmemorará el Día Universal de los Derechos de la Infancia. Por este motivo y teniendo en cuenta que este año conmemoramos el 32º aniversario de la Convención sobre los Derechos de la Infancia (CDN) distintos centros educativos de secundaria del Territorio Histórico de Bizkaia acudimos a la emblemática Casa de Juntas de Gernika con el fin de reivindicar el derecho a la identidad recogido el 8º artículo de dicha convención.

Como participantes activos de la sociedad vasca valoramos la oportunidad otorgada de dar voz a nuestras preocupaciones y reivindicaciones en un sitio como este, que pese al paso del tiempo sigue siendo hoy referente en la toma de decisiones, escucha activa de ideas e identidades dispares y lugar de encuentro para la democratización.

De esto modo, en primer lugar y haciendo uso de la palabra nos gustaría aquí y ahora recordar que la Identidad es un derecho fundamental, a través del cual se vela y posibilita las diferentes identidades de cada individuo y colectivo. Por eso, creemos y hacemos un llamamiento a la no discriminación, reivindicando una sociedad libre de prejuicios donde cada identidad este respetada.

Entendemos que la identidad va mucho más allá de lo recogido en el DNI. Identidad es como me siento, identidad es como soy, identidad es que tenemos en común, identidad es donde vivimos. En definitiva, identidad es los rasgos y características que nos definen como individuos o colectivos.

Somos conscientes que pese a ser, no todo lo que somos esta respetado en la actualidad. Por eso desde la oportunidad que hoy se nos otorga, pedimos romper con estereotipos y etiquetas, queremos ejercer nuestra libertad para ser como somos, a no tener miedo a ser juzgados por nuestros gustos, nuestra manera de ser, por nuestra vestimenta o nuestros hábitos.

Como jóvenes soñadores no solo nos conformamos con esto, por eso cada vez son más las voces que rompen el miedo a decir quiénes son destituyendo la vieja idea de que género y sexo son uno. Nosotros y nosotras apelamos a construir entre todos y todas, la sociedad igualitaria en la que no se nos juzgue por ser quienes somos, por sentirnos como somos o gustarnos quien nos gusta para que nadie nunca más tenga que romper más nada.

Del mismo modo queremos alzar la voz para decir basta. Basta al desequilibrio de igualdades con las que nos encontramos hoy en día en relación al género, ya que ni género, ni etnia, ni nacionali-

dad deberían de ser motivo de desprecio sino de enriquecimiento como sociedad. Queremos dejar de lado la dualidad y comenzar a tratarnos de tú a tú, de iguales, de no crear barreras sino puentes, ya que todas y todos en diversidad sumamos más.

En definitiva, como presente y futuro de la sociedad vizcaína que somos reivindicamos el espacio que nos corresponde. Haciendo un llamamiento a no dejarnos de lado en la toma de decisiones, hoy 18 de noviembre de 2021 aprovechando el lugar que se nos ha otorgado y tal como se como se refleja en la Convención, reivindicamos el derecho a la participación pidiendo a la clase política que junto a los derechos universales los derechos de la infancia no se queden de lado, por que trabajar en ello es defender al futuro.

¡TENEMOS DERECHO A LA IDENTIDAD!

¡SOMOS MUCHO MÁS DE LO QUE APARECE
EN EL DNI!

¡ERES LO QUE TE SIENTES!

¡TODA PERSONALIDAD ES RESPETABLE!

¡QUEREMOS VIVIR NUESTRA IDENTIDAD
SEXUAL CON NATURALIDAD!

¡REIVINDICAMOS UNA SOCIEDAD SIN
RACISMO!

¡QUEREMOS VIVIR EN IGUALDAD!

¡EL GÉNERO NO DEFINE EL SEXO!

¡PEDIMOS QUE LAS REDES SOCIALES SE
CONVIERTAN EN ESPACIOS SEGUROS PARA
LA IDENTIDAD!

¡PEDIMOS NO SER JUZGADOS POR SER
QUIENES SOMOS!

¡LA CULTURA DE CADA UNO/A ES PARTE DE
UNO/A!

¡NO A LA VIOLENCIA HACIA LA IDENTIDAD DE
GÉNERO!